

Aldaketari beldurra, Katalunian ere bai

Mendebaldearen gainbeherak aurpegi asko ditu. Horietako bat da ezker hegemonikoak azken hamarkadatan eman duen espektakulu tamalgarria, inperialismoaren eta neoliberalismoaren ezkutari *progrea* bilakatuz. Baina, krisiaren errautsetatik bestelako ezker berri baten agerpenak ilusioa piztu zuen bazter batzuetan. Ondoren, frustrazioak iritsi ziren. Ezker berri horrek gobernua lortu du Grezian, baina gauzak aldatu baino, herstura ekonomikoen bidea sakontzen jarraitu du. Horregatik, epe motz eta ertainean zaila da irudikatzea ezker eraldatzaileen arrakastarik Lehen Mundu dekadentean.

Ezkerraren ezinaren ardura ez dago bakarrik maila politikoan, arazoak dituen sustraiak sakonagoak dira. Mendebaldeko jendarteak oso kontserbadoreak dira. Maiz entzun dugu *akomodatuak* direla, baina ez, ez da nahastu behar erosotasun ekonomikoa eta kontsumo maila altua. Geroz eta jende gehiagok ditu estutasun ekonomikoak edota ematen dituen lanaldi luzeak ezin dira definitu bizitza eroso baten parte bezala. Halere, jendea kontsumismora besarkatua bizi da, populazioa zaharritua dago eta, oro har, gehiengoak Stockholmeko sindromearen antzeko zer edo zer bizi du, horregatik, benetako aldaketari beldurra dio.

Benetako aldaketak mina suposatzen du. Unean uneko mina da, nahiz eta etorkizunerako hobeia izan daitekeen, baina ez dago aldaketarik modu bateko edo beste minik gabe. Berriz, mendebaldeko ezker moderatuak edo eraldatzaileak egun saltzen duena da minik gabeko aldaketa. Botoa eman, hauteskundeak irabazi, egungo politika ekonomikoak ñabartu eta dena etorriko omen da bere onera. Greziako Syriza alderdiak hori bera egin nahi izan zuen, politika sozialak lehenetsiz, interes



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Independentzia aldarrikapenaren hurrengo egunerako teknikoki dena omen dute prest katalanek, baina prest ez dutena da herritar gehiengoaren psikologia. Sektore batzuk (bereziki enpresarien artetik) dagoeneko agertu dira esanez ez daudela prest mina sufritzeko, aldiz beste askok ezin du imajinatu ere horrelako prozesu batek epe motzean sortu dezakeen mina

orokorra beste edozein interesen gainetik jarriz, baina sistema ekonomikoa aldatu gabe. Ordea, populazioa mina sufritzeko prest egon ezean hori ilusio bat izan zen, adibidez, euroa utziaz edo uzteko benetako saiakera bat eginez, Europar Batasuna eta Alemania derri-gortzeko benetan negoziatzerara. Horrek epe motzean mina sortuko zukeen,

baina epe luzera greziar ekonomia eta herriarentzat onuragarria izango zen. Syrizar esan du hori ez dela greziarrek nahi dutena eta beraz, inoizko murrizketa eta politika neoliberalen aplikazio bortitzena egiten ari da euroan gelditzearen truke.

Gurean, bertsio hori ere ikusi dugu eta ikusten dugu egunero. Irribarre egin, koloreak hemendik eta handik, konfetiak eta giro ona, hauekin, baina batez ere botoarekin, helburuak erdie-tsiko direla sinetsarazi nahi zaie herritarrei. Katalunian antzeko sindromea bizi dute, sezesio prozesuak antolakuntza, sormen eta abilezia gaitasun handiak erakutsi ditu, baina bi gabezi eta arazo handi bat ditu: alde batetik, azkeneko hauteskundeen ostetik lidergo eta gehiengo argi baten falta ditu; bestalde batetik, aldaketa-mina binomioa ez da landu.

Independentzia aldarrikapenaren hurrengo egunerako teknikoki dena omen dute prest katalanek, baina ez dutena prest da herritar gehiengoaren psikologia. Sektore batzuk (bereziki enpresarien artetik) dagoeneko agertu dira esanez ez daudela prest mina sufritzeko, aldiz beste askok ezin du imajinatu ere horrelako prozesu batek epe motzean sortu dezakeen mina. Aldebakarreko edozein independentzia prozesuak mina sortu du epe motzean, era atseginagoan esanahi badugu deserosotasunak sufritu dituzte herritarrek. Ekonomia gaixotzen da; nazioarteko aitortenpe gabe sistema finantzarioa aldrebestu eta kaltetzen da; soldatek bera egin ohi dute, produktuen prezioek gora egiten duten artean; eta abar. Antzeko egoerak sufritzeko prest egongo dira katalan independentistak? Orain arte iragarritako datak bete ez izanak eta prozesuaren atzerapenak garbi uzten dute mina saihesteko nahia, garaituko al du beldurrak? ■